

# Aurkezpena



Material hau egitea ezinezkoa izango litzateke **Alboan** fundazioko prestakuntza arloko pertsona boluntario, laguntzaile eta langileen laguntzarik gabe.



## Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

# 1. Batxilergoan proposaturiko hezkuntza materiala

Material honek Batxilergoko ikasleekin eskubide eta betebeharren gaia lantzeko proposamen didaktiko batzuk ditu. Proposamen hau hiritartasun kontzeptua landu nahi den prozesu zabalago baten barruan kokatuta dago. Lehendabiziko urte honetan eskubide eta betebeharren gaia landuko da funtsezko lau ideia jorratzen saiatuz.

- Pertsona guztiok eskubideak ditugu.
- Guztienak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak dira.
- Eskubideek betebeharrak dakartzate eurekin.
- Eskubideak zein betebeharrak senidean, ikasgelan, auzoan, hirian daude.

Batxilergoan material honek duen helburu orokorra pertsona guztiok hiritar garen aldetik ditugun eskubideez eta horiek bermatzeko eta gure mundua mundu justuago eta solidarioago bat bilatzeko bete behar ditugun betebeharez kontzientzia hartzea da.

Hezkuntza etapa honi dagokion kurrikulutik abiatuta, ikerketa, analisia, kontrastea eta ebaluazioa batera dituzten jarduera ezberdinak proposatzen dira, gure jarrera eta errealitatearen beraren aurrean gaitasun kritikoa eskuratu nahian, baita pertsona bakoitza bere buruaz arduratzeari buruz hausnartzeko ere. **Filosofian** giza eskubideak bortxatu eta hautsi direneko kasuen azterketa bat egitea proposatzen da, hori gertatzen segi ez dadin proposamen batzuk egitearekin batera. **Historian**, 1978ko Konstituziotik eta Gizarte Garapenerako Batzarretik abiatuta, Estatuak eskubideen bermatzaile izatearen inguruan eta hiritarrek guztionak diren kon-tuetan inplikatzeko beharraz hausnarketa egin ohi da. **Hizkuntza eta literaturan** komunikabideen inguruan hausnartzen da iritziak eragiten dituzten aldetik, eta horrek inmigrazioaren gaian dituen eraginak aztertu. **Ekonomian**, ekoizpen prozesuan zerikusia duten elementu ezberdinen azterketatik, kontsumitzaileen esku-bideek langileen eskubideetan eragiten dituzten mugekin sortzen den gatazka eztabaidatzen da. **Biologian**, jarduerak zenbait eskubideren unibertsaltasuna zalantzan jarri nahi dute eta giza genoma, VIH-a eta horien tratamendurako aukeran lan egiten da. **Etikan**, kasuen analisiaren teknikatik pertsona bakoitzaren errealita-tean sakontzen saiatzen da, egunero eskubideen eskatzea eta betebeharren betetzea gatazkan sartzen diren errealitatea. Material hauek bigarren hezkuntzako bigarren zikloan **erlijioa eta atzerriko hizkuntzarako** dau-denekin osa daitezke.

Kurrikuluan proposaturiko helburuetatik, heziketaren bitartez errealitateaz hausnartu eta berau aztertzeko gune bat eratzea ahalbidetzen duten jarduerak proposatzen dira.

Gure materiala aplikatzean lortu nahi diren xede nagusiak honakoak dira:



- Ikaste esanguratsua erraztea parte hartzeko metodologia sortzaileen bitartez, elkartasun jarrerak sustertzen dituztenak bai eta gizarteari buruzko arazoak konpontzeko gaitasuna ere.
- Esperimentatzea simulazio, ikus-entzunezko, material grafiko... eta era horretako tekniken bitartez, pertsona guztientzako bermatuta egon behar duten eskubide batzuk izatearen garrantzia, arrazoi ezberdinak direla kausa sortutako diskriminazio egoerak baztertuz: jatorri soziala, hizkuntza, kultura, sexua, arraza, sinismenak, etab.
- Norberak dituen portaerek beste pertsona batzuen eskubideetan duten eragin garrantzitsuaz ohartzea.
- Antzematea ohitura automatikoak eta kontziente bilakatu jokaera konstruktibo eta positibo bihurtzeko.
- Diskriminazio egoerak zein bidegabeak direnak antzeman eta errefusatzeko jarrera positiboak garatzea aniztasuna aberastasun gisara baloratuz senidean, ikasgelan, hirian eta munduan oro har.
- Lankidetzarako eta entzuteko jarrera izatea talde lanean.

Azken batean honakoa lortu nahi duten jarduerak proposatzen dira; hezkuntza, pertsona guztiontzako mundu justu eta duinagoa eraikitzeko gizartearen eraldaketa eta inplikaziorako hausnarketa eta gaitze gune bilakatzeko laguntzea.

Amaitzeko esan beharra dago, **Alboan** prest dagoela irakasleak aholkatu, prestatu eta hezkuntza proposamen hau praktikan jartzean laguntzeko.

## 2. Zikloko irakasle eta gurasoentzako proposamena

Zikloan gai hori lantzeko, interesgarri deritzogu irakasleek beraiek zein gurasoek gaiari buruz hausnartzeko eta oinarrizko helburuak zehaztu eta ikastetxeko errealitatera egokitzeko materiala eta denbora izateari.

Horretarako, orientabide izan daitezkeen agiri bi aurkezten dira: Lehendabizikoan, “*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*” izenburuduna, hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren filosofia azaltzen da. Lortzeko apustua egiten dugun hiritartasun kontzeptua definitu egiten da eta zenbait hezkuntza estrategia zehazten dira.

Bigarrenean, “*Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak*”, hezkuntza materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, karpeta honetan diren materialak eta poster, bideo, lehiaketak, mahai-jokoekin osatuta hain zuzen, bai eta **Alboan**-en aholkularitza eta prestakuntza ere.



Agiri hauek prestakuntza saioetan oinarri izan dakizkieke irakasle zein gurasoei ikuspuntuak trukatzeko, tes-  
tinguru zehatzaren inguruko lehentasunak ezartzeko eta proposamenak osatzeko.

Ondoren, prestakuntzarako hiru saiotarako proposamena dugu gaia klaustroan, taldean edo gurasoekin  
azaltzeko.

## 1. Saioa:

Aldez aurretik *“Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara”* agiria banatu da.

1. Talde dinamika: scrabble hiritartasun hitzari buruz.

- a. Irteten diren hitzak komunean jarri.
- b. Hitzoi lehentasuna eman.

2. Hiritartasuna agiriaren gaineko honako galdera hauek planteatzea.

- Agiriaren inguruko argitasunak edo komentarioak.
- Zer dakarkizu burura hiritartasunaren gaiak?
- Gaiaren diagnostikoa:
  - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
- Zein zerikusi du zure hezkuntza zereginarekin?
- Ezagutzen dituzun gaia lantzen duten proposamen eta ekimenak.
- Bururatzen zaizkizun zure hezkuntza praktikan beharrezko edo iradokitzaile izan daitezkeen proposamen zehatzak honako honi buruz:
  - Gaiak
  - Metodologia

3. Talde-lana eta komunean jartzea.

## 2. Saioa:

1. Taldeka, eta aurretik azaldutakoa kontuan izanik, hiritartasuna ikastetxean zein ikasgelan gaiari buruzko diagnostikoa egin.
2. Guztion arteko gaiari buruzko gaineko elkarrizketa.
3. Ikasturtea honetako gaiaren aurkezpena: eskubideak eta betebeharrak.

Agiriaren banaketa: “Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak” eta galdera eta iradokizunak.

### Agiria lantzeko kontuak

#### Gure ikasgeletara so eginez...

- Zein beste elementu sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten duzu zure inguruan? Zein alderdi positibo ikusten duzu gure munduan? Zein puntutaraino uste duzu baliagarri zaiela diagnostiko hau zure ikasleei? Uste al duzu betebeharrak eta erantzukizunak baino, eskubideak dituztela sentitzen dutela?
- Noiz igartzen duzu erantzukizunaren areagotzea zure ikasleengan? Zein egoeraren aurrean? Nola uste duzu susper daitezkeela erantzukizunak ikasleen artean?
- Ikasleekin arrazoitzen duzunean errespetua, guztien ongia eta elkarri zaintzearekin zerikusia duten kontuekin erantzule izan daitezen, zein argumentu darabilzu? Nola sentitzen zara zu diagnostikoaren aurrean? Funtsean, non kokatzen zara zure familian, ikastetxean, hirian, munduan..., zure eskubideen defentsa egiten edo zure erantzukizunak jokoan jartzen?

#### Geure buruari so eginez...

- *Neure betebeharrei dagokienez...*

Gu geu gara gure eskubide eta erantzukizunak noraino heltzen diren hobeto dakigunok, sarri askotan kontratuz eskatzen dena baino harago: Zein betebeharrei deritzet funtsezko garatzen dudan nire hezkuntza lanean? Zeintzuk daude nire “lan” betebeharetik haratago?

Eta hezkuntza komunitateko kide legez: Ze betebeharrak uste dit direla bete behar ditugunak? Nori dagozkio?

- *Besteen eskubideei dagokienez...*

“Eskubide” / “betebehar” bikotearen kontzientzia hazten ari da, eta egoera horretan berebiziko garrantzia dute besteen eskubideek (batez ere laguntza gutxien dutenenak). Hezkuntza inguruan ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak, langileak, patronala..., horietaz guztietaz arituko ginateke. Zeintzuk dira euren eskubideak? (ohar zaitetz aipatu ditugun talde ezberdinez) Nola defenda ditzaket?

### 3. Saioa:

1. Taldeka, galderak komentatu eta ikastetxe zein hezkuntza zikloaren diagnostiko bat egin.
2. Guztien arteko elkarrizketa.
3. Funtsezko helburuak erabaki eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

## 3. Informazio gehiago lortzeko

Web orrialdeen zerrenda dugu hau informazio gehiago eskuratu eta eskubide eta betebeharren gaiarekin zerkusia duten beste bitarteko batzuetarako aukera izateko.

### Hezkuntza proposamenak dituzten orrialdeak

<http://www.derechos.net/links/esp/edu/> HEZKUNTZARAKO ESKUBIDE BEREZIA HEGOAMERIKATAKO HERRIETAN. LINK-AK IRAKASLE ETA IKASLEENTZAKO TRESNEKIN.

<http://www.derechos.net/edu/> HAURRENTZAKO LINK BEREZIAK.

<http://www.pangea.org/edualter/material/ddhh/sedupaz.htm> JOKO DIDAKTIKOAK DITU.

<http://www.hrea.org/> Ingelesez. HONAKO HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA :

<http://www.amnistia.org.py/edu.html> NAZIOARTEKO AMNISTIAREN ORRIALDE HEZGARRIA.

<http://www.serpaj.org.uy/revista.htm> IRAKASLEEI BEGIRA.

<http://www.uca.edu.ni/koinonia/varios/ddhh.htm> GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA DU, HERRI BERTSIO BAT, BIBLIAREN AZTERKETA BAT...

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/4propostes/index-esp.html> GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAZ KONTZIENTZIA HARTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK.

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/musica/fichas-indice.html> GIZAKION ESKUBIDE ETA LIBERTATEETAN INSPIRATURIKO KANTA SORTA.

### Bitarteko interesgarriak dituzten orrialdeak

<http://www.acsur.org/>.

<http://www.derechos.net/esp/>

<http://www.eurosur.org/spa/derechos.htm>



<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA/>  
<http://www.derechos.net/links/esp/foro/> EZTABAIDA FOROekin LOTURA.  
<http://www.derechos.net/links/esp/temas/>  
<http://www.derechoshumanos.org/> EZTABAIDA FOROA.

## Adierazpenak

<http://www.pnud.org.ve/idh/deberes.asp#01>. NAZIO BATUETAKO PROGRAMA. HEZKUNTZAREN INGURUKOA.  
<http://www.derechos.net/doc/dudh/> GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA IZAN ZENEKO 50. URTEURRENA. AZALTZEKO ETA IKASTEKO.  
<http://www.iepala.es/DDHH/> BOTEREAREN TEORIAREN AZALPENA. NAHIKO ZEHATZA.  
[http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit2\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit2_sp.htm) EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK.  
[http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit3\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit3_sp.htm) HAURRAREN ESKUBIDEAK.  
[http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/74\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/74_sp.htm). GARAPENERAKO ESKUBIDEA.

## Eskubideak eta betebeharrak eremu ezberdinetan

<http://www.oas.org/SP/PROG/pg19-23.htm>. GIZAKIAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN AMERIKAR DEKLARAZIOA.  
[http://www.educa.rcanaria.es/usr/iespuertor/derechos\\_y\\_deberes\\_alumnado.htm](http://www.educa.rcanaria.es/usr/iespuertor/derechos_y_deberes_alumnado.htm) IKASLEEK IKASTETXE BATEAN DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.  
<http://averroes.cec.junta-andalucia.es/~29003397/estiloco.htm> IKASTETXE BATEKO IKASLE ZEIN GURASOEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.  
<http://www.internen.es/opositor/or/DCTS/Derechos.htm> IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ETA IKASTETXE BATEKO ELKARBIZITZARAKO ARAUAK.  
<http://www.comadrid.es/inforjoven/cridj/derdebe/derech.htm>. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.  
<http://www.uah.es/organizacion/otros/derechosydeberes.shtm>. ALCALÁ-KO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.  
<http://www.asamblea.gob.ni/constitucion/deberes.htm>. NIKARAGUAR PARLAMENTARIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.  
<http://www.cruzroja.org.ar/volu/debe.htm> ARGENTINAKO GURUTZ GORRIKO BOLUNTARIOEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.



# *Hizkuntza eta Literatura*



MUNDUKO  
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA



## Helburuak

- Komunikabideek mundua ikusteko eran eta bertan jarduteko moduan iritziak sortzen dituzten aldetik, duten eraginaz kontziente izatea.
- Pentsamenduaren autonomia eta zentsu kritikoa sustatzea.
- Gutxiengo etnikoei buruz prentsan azaltzen diren mezu inplizituak deskodetzeko tresnak ematea.
- Emigranteekiko elkartasuna eta enpatia suspertzea.
- Migrazio fenomenoaren aurrean ditugun betebeharrak berrikustea.
- Nork bere iritzia modu txukun eta arrazoitu batean agertzeko gaitasuna lantzea.
- Internet erabiltzea informazioa biltzeko.

## Jarduerak

### 1 Jarduera:

### “Gizon-emakume inmigranteen eskubideak”

**Deskribapena:** Ikasleei egunkari ezberdinetan inmigranteei buruzko artikulua bilatzeko eskatuko zaie. Taldeka, hiru hautatu eta zuzentzaileak direla imajinatuz, inmigranteak ondo tratatzen direnentz erabaki beharko dute. Balorazioa egiteko, Giza Eskubideen Munduko Deklarazioa eta erantsiriko fitxa 1.1. kontuan hartzeko esango zaie. Ondoren, guztien artean, eskubideak eta betebeharrak izateko Estatu batekoa pertsona izatea baino beharrezkoa den ala ez eztabaidatuko dute.

**Materiala:** Egunkariak edo beraiek ekarritako egunkarietako artikulua, Giza Eskubideen Munduko Deklarazioa eta fitxa 1.1.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 60 minutu.



## 2 Jarduera:

### “Denok gara protagonista, baita inmigranteak ere”

**Deskribapena:** Ikasleei prentsa artikulua bat idazteko eskatuko zaie, bertan Espainian inmigrazioak dituen alderdi positibo eta arazoak eragiten dituztenei buruzko iritzia agertu beharko dute, baita egoera aldatzeko gure eskubide eta betebeharren gainekoa ere. Artikulurako iradokitzen den izenburua “Hiritartasun interkulturalaren aberaztasuna (gelan, nire auzoan, nire herrian munduan): gure eskubide eta betebeharrak”.

Artikuluaren ikasleen iritzia agertu beharko dira, dena den horretarako aurretiaz Interneteko orrialdeetan informazioa biltzeko eskatuko zaie:

<http://www.elpais.es/temas/inmigracion/>

<http://www.acpp.com/inmigracion.htm>

<http://busqueda.yupimsn.com/categorias/gobierno/pejecutivo/presidencia/ministerio/relaciones/inmigracion/>

<http://www.eurosur.org/CIPIE/prensa.htm>

<http://ariadna.elmundo.es>

<http://www.abc.es>

<http://www.reicaz.es/extranjeria/menu2/default.html>

Exodo Aldizkaria. 58. zenbakia, Martxo-Apirila 2001. El test de la ciudadanía. Javier de Lucas.

**Materiala:** Internet aurkituriko inmigrazioari buruzko agiriak, prentsan edo etxean eta fitxa 2.1.

**Dinamika:** Banaka.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Iradokizuna:** Behin artikulua zuzenduta, aurkezturiko iritzia zein erabilitako argumentuak komunean jar daitezke ikasgelan debatea sortuz. Saia daitezke elementu batzuk eta zenbait proposamen praktiko adosten, ikastetxetik edo auzotik gauza daitezkeenak inmigrazioak ematen digun aberastasun kulturalaz benetan gozatu ahal izateko.



# Fitxa 1.1.

## Artikuluak aztertzeko

Azterketa errazteko, hona hemen zenbait kontu:

- ☞ Azterketarako gakoak: hasiera batean, idatz ezazue laburki berria izan den gertaera eta kontuan izan uneoro, artikulua bakoitzaren ostean egon daitekeen balorazio subjektiboa eta mezu inplizitua.
- ☞ Ohar zaituzte artikulan azaltzen diren pertsonen eta atera itzazu dituzten ezizenak (marokoar, sasoikako, ilegal, paperik gabekoa, enpresaria, merkataria, ama, hiritar...). Kontatzen den gertaerarako informazio garrantzitsua al da? Tratu ezberdina islatzen al du? Inplikaturik dauden pertsona ezberdinen deskribapena, parekagarria al da?
- ☞ Agertzen al dira gertakarian inplikaturik dauden pertsonen bertsio ezberdinak? Zein bertsio azaltzen dira?
- ☞ Emaniko informazioak, alde aurretik prestatzen al du, nolabait, irakurlea?
- ☞ Azterketa lan sakona egin nahi baduzu, kontrasta itzazu artikulan agertzen diren datuak beste egunkari edo dagozkion iturrietakoekin.
- ☞ Idatz itzazu izenburuak berriro protagonistaren jatorria edo lanari erreferentzia egiten dioten datuak ezabatuz, eta jar ezazu informazio hori berriaren amaieran informazio osagarri gisa. Zertan aldatu da berria? Funtsezko zerbaitek ezabatu al da?
- ☞ Berregin ezazu berria gizabanako biei tratu berdina emanaz, balorazio subjektiborik egin gabe eta kontatzen den gertakariarekin leial izanez. Zein alderdi zehatzetan aldatu da berria berregin ostean?
- ☞ Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala kontuan izanik, ba la dago artikulan, irudi, ezizen, komentarioan... zentsura daitekeen ezer? Zergatik? Esan zenezake Deklarazioaren zein artikuluetan azaltzen den?


## Fitxa 2.1.

### Artikuluaren protagonistak

#### Artikulua idazteko, jarrai itzazu honako urratsak:

1. Idatz ezazu defendatu nahi duzun **tesia** laburtzen duen esaldi bat: gogora ezazu **oso zehatza, argia eta pertsonala** izan behar duela! Esaldi hori zure zirriborroaren goiburuan egongo da idazkian ez desbideratu ezta sakabanatzeko ere. Hausnartu eta pentsa ezazu zergatik uste duzun positiboa dela inmigrazioaren fenomeno; ahaztu itzazu topikoak.
2. Zerrenda itzazu oinarrituko zaren **hiru argumentu** eta bila ezazu **datu** zehatzen bat zure idazkiari objektibotasuna emateko (bil dezakezu zure ustez egokia edo deigarria den dokumentu ezberdinetako informazioa). Kontra egin diezaiokezu inmigrazioaren kontrako iritzi orokor bati.
3. Egin ezazu zure iritzi artikuluaren **egitura** edo progresio tematikoa islatzen duen **gidoi** bat. Badakizu aukerak mugatuta daudela; egitura deduktiboa hauta dezakezu, induktiboa, enkoadratua, errepikakorra... etab. Ondoren, pentsa ezazu testuari lotura emango dioten diskurtsoaren lokailu edo adierazleetan. Zeure iritzia defendatzen ari zara!
4. Ez ahaztu iritzi zutabea **sinatzea**, testu erabat pertsonala eta estilo librea duena baita. Azkenean irakasleari emango zaio.
5. **Guztiok batera** daudela, testuetan defendatu diren tesi guztiak irakurriko dira gainontzeko ikas-kideen iritzia ere ezagutu ahal izateko.
6. Iritzi artikuluak toki egunkariren bateko iritzi atalera ere igorri ahal izango dira.

# *Ekonomia*



**Alboan**

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Ekoizpen prozesuan zeregin ezberdinak dituzten alderdi eta elementu parte hartzaileen kontzientzia hartzea.
- Eguneroko gertakarien aurrean gaitasun kritikoa eskuratzea.
- Fenomeno jakin bati buruzko ikerketa burutzeko gaitasuna garatzea.
- Emandako iritzi baten aldeko eta kontrako argudioak ematea.
- Ikasleak itxuraz urruti dauden errealitateetara hurbildu eta eurentzat eskuragarri jarri.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Ordutegi askatasuna?”

**Describapena:** FAC edo Haizeetako Arrosaren moduko dinamiken bitartez (fitxa 1.1.), merkataritza-ordutegiaren liberalizazioarekin zerikusia duen esaldi bat aztertuko da eta bere esanahian sakondu egingo da alderdi ekonomikoak, sozialak, politikoak, ingurugirokoak... kontuan hartuz. Hortaz, eskatu egingo zaie ikerketa lan bat egiteko eta horretarako Internetera jo dezakete, kontsumitzaileen bulegora, udaletxera, legeetara, sindikatuetara...

Guztion arteko elkarrizketa bat egingo da bai eta debate bat ere kontsumitzaile, ekoizle, merkatarari, eta abarren eskubide eta betebeharren artean.

**Materiala:** Aztertu beharreko esaldia (fitxa 1.2.), egunkariak, Internetarako sarbidea.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.



## 2 Jarduera

### “Langileen eskubideak, kontsumitzaileen eskubideak”

**Deskribapena:** Fitxa 2.1ean den artikulua irakurtzeko proposamena egingo da. Lehenengo eta behin artikularen egileak argumentatzen dituen oinarritzko arrazoiak ateratzeko eskatuko zaie ostean, beraiei bururatzten zaizkien beste arrazoi batzuekin osatzeko. Eska dakieke horrekin guztia-rekin artikulua bat idazteko. Hurrengo saioan honako hauek bezalako kontuen inguruko debatea planteatuko da:

- Langilearen eskubideak, kontsumitzailearen eskubideak.
- Merkataritza-ordutegiaren erabateko liberalizazioaren abantailak eta desabantailak.
- Merkataritza-ordutegiaren liberalizazioa eta kontsumoa.
- Kontsumo arduratsua eta lan-justizia.
- Kontsumo arduratsua, ekoizpena, etekinak eta langabezia.

Debatea amaitutakoan irakasleak honakoak azpimarra ditzake:

- Ez dago eskubiderik betebeharririk gabe;
- guztiok ditugu eskubide eta betebeharrak;
- geuk eskubide eta betebeharren oreka hori mantentzeko konpromisoa eragingo diguten ekintzak buru ditzakegu.

Saia daiteke taldearekin eguneroko bizitzarako ekintza konkretuen proposamenak edota zentrorako izan daitezkeenak eginez amaitzen.

**Materiala:** Irakurtzeko agiria (fitxa 2.1.).

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bat.

**Bitarteko osagarriak:** [http://www.google.com/search?hl=es&q=comercios+horarios+trabajadores&lr=lang\\_es](http://www.google.com/search?hl=es&q=comercios+horarios+trabajadores&lr=lang_es)  
<http://www.el-mundo.es/nuevaeconomia/99/NE011/NE011-04.html>  
[http://www.geocities.com/prt\\_es/ops47-6.htm](http://www.geocities.com/prt_es/ops47-6.htm)  
[http://www.saludmania.com/canales/calidad\\_de\\_vida/calidad\\_de\\_vida.asp](http://www.saludmania.com/canales/calidad_de_vida/calidad_de_vida.asp)



# Fitxa 1.1.

## Ikerketarako tekniken inguruko proposamen bi:

### 1. FAC teknika

#### Kontuan hartzeko alderdiak

Teknika esaldiari galdera klabe batzuk egin eta era guztietako bitartekoak erabilia erantzutean datza (Ekonomiako apunteak, Internet, kontsumitzaileen bulegoa, sindikatuak...).

- Nortzuk daude inplikaturik?
- Zein erlazio mota sortzen da?
- Ba al dago jarduteko beste aukera egoki edo bidezkoagorik?
- Zer gertatuko da epe luzera? Urte batzuk barru, eutsi ahal izango zaio egoerari?
- Zein bestelako alderdi hartu beharko litzateke kontuan?

### 2. Arrosen Haizearen teknika

Talde bakoitzari gure haizeetako arrosan den hitz bat emango zaio, Natura, Gizartea, Ekonomia eta Gizarte Antolamendua. Definitu behar duten hitzarekin zerikusia duten bestelako hitza kartulinetan idazteko eskatuko zaie.

- Natura: energia, airea, ura, zorua, izaki bizidunak, horien arteko erlazioa. Inguru naturala eta gizakiok eraiki edo moldatutako ingurua.
- Ekonomia: kapitala, merkataritza, jabegoa, trukeak, laguntza, maileguak, zorra.
- Gizartea: pertsonak, haien arteko harremanak, beraien ohiturak, kultura, bizimoduak. Zer-nolako eragina dute generoak, arrazak, ezintasunak, gizarte mailak, adinak... gizarte bakoitzeko harremanetan.
- Antolamendu politikoa: boterea, nork erabakitzen du?, nork markatzen ditu lehentasunak eta erabakitzen ditu gertakariak?, nortzuei egiten die mesede? eta nortzuk ateratzen dira galtzaile erabaki horien ondorioak direla eta?

Jarraian, haizeetako arrosa bat zer den azalduko da, eta marraztu ostean erdian esaldia jarriko da (posible izatekotan, esaldia jarri beharrean erreferentzia egiten duen irudi bat jarri) eta talde bakoitzari, haizeetako arrosaren lau hitzak kontuan izanik, esaldiari buruzko galderak egiteko eskatuko zaie.



## Fitxa 1.2.

### Ordutegi askatasuna

“...2001eko urtarrilaren 1ean Administrazio nagusiak autonomia erkidegoekin batera, merkataritza-ordutegien erabateko liberalizazio osoa gauzatu du...”

## Fitxa 2.1.

### Ordutegirik gabe bizi eta lan egiteak osasunean dituen eraginak

Pertsonen %20a “normalak ez diren” ordutegietan egiten du lan eta horrek osasunean eragin larriak ditu. “24/7”-ko gizartea da, guardia iraunkorrekoa, amaierarik gabeko lanarena. Gonzalo Casinok gizartean den izurri izugarria aztertzen du artikulu bikain honetan.

Hiri gizarteetan behinik behin, bost pertsonetatik batek bulegoko ordutegi “arruntetik” kanpo egin ohi du lan. Seguru aski hau da garai berriotako ezaugarri nabarietako bat.

Gaueko guardiak eta txandakako lana ez dira soilik osasun-adituen kontua, izan ere, astean zazpi egun eta 24 ordu jarraian egiten duten hainbat jarduera ezberdin dago eta.

### 24/7 gizartea

Funtsezkoen diren zerbitzuetara, osasunaren ingurukoak edo hiri-segurtasunarenak esaterako, azken urteotan beste asko gehitu izan da, 24 orduko dendetatik, informazio eta bezeroaren arretarako zerbitzu ezberdin horietara, berehala lekua hartu dutenak.

Internet, ordutegi guztietako pertsonak “on line” mantentzen dituzenez, “24/7 economy” edo “24/7 society” deritzona ezartzera heldu da, alegia, 24 orduz irekita dagoen gizartea asteko zazpi egunetan (...).

## **Horrek bere prezioa du**

Baina horrek, gure genetan aurreikusita ez zegoen horrek, prezio bat dauka, orain aztertzen hasi dena bai osasun kontuak direla, bai produktibitatea maximizatzeko.

## **Era guztietako osasun-arazo**

Egiaztatu egin da loaren alternantzia eta bijilia hormona-jariaketan aldaketa erritmiko eta igartzeko modukoekin batera doala, arnasketa maiztasuna eta bronkioen diametroa, gorputzaren tenperatura eta arteria-presioa, bestelako parametro eta funtzioen artean, baina giharren indarrean ere, adi egoteko gaitasuna eta koordinazioa.

Eta halaber, egiaztatu egin da txandaka ari diren langileek errendimenduan eragina duen erritmo zirkadianoen sinkronizazio eza pairatzen dute, lo arazoak izateko arriskua, gatrointestinalak eta kardiobaskularrak.

Gauza jakina da ere, Chernobil, Exxon Valdez eta Challenger hondamendiek, beste gauza batzuen artean, lan konplexuak egiteko gaitasuna oso-oso eskasa den orduetan izaniko gizakion akatsen eraginez gertatu zirela.

## **Bizi-itxaropenaren beherakada**

Shanta Rajaratnam eta Josephine Arendt, Surreyko Unibertsitateko Kronobiologia Zentrokoak (Erresuma Batua), osasuna eta gaueko lanaren ekonomiaren ondorioak aztertu dituztenek, txandaka lan egiten duten langileek pairatuko dituzten arazoak direla kausa egingo diren auzien gorakada iragarri dute.


Eta argitu beharrekoa da zein prezio ordaintzen den bizi eta lan egitearen truke ordutegirik gabeko gizarte batean, eta erloju endogenoa zein puntutaraino kontrola daitekeen, horrela banaka eta talde mailan hobeto baloratzeko “24/7 ereduak” merezi duen.

1/11/2001

Gonzalo Casino. © Copyright Ediciones Doyma, S.L.  
Salud Manía © 2000-2001.



# Matematikak



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Matematikak errealitatearekin, inguru kultural, sozial eta ekonomikoarekin erlazionatzea.
- Talde lana matematiken irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan elkarrekintza pertsonalaren oinarritzko elementu gisa baloratzea.
- Komunikabide idatzietan azaltzen diren estatistikak kritikoki irakurtzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera:

### “Zenbakiak eta pertsonak”

**Deskribapena:** Ikasleei Nazio Batuetako Garapenerako Programak ateratako datuen inguruan lan egin dezaten eskatuko da (<http://www.undp.org/hdr2001/spanish/>). Honek giza garapenera begirako ikuspegi berri bat ezartzeko ahalegin handia egin du eta ez du soilik adierazletzat ekonomia aberastasun maila hartzen, horrekin batera hezkuntza eta osasunarekin zerikusia duten alderdiak ere aintzat hartzen ditu.

Giza Garapenaren Indizeko zerrenda emango zaie eta azalduko da garapena “neurtzeko” era horren oinarri den formula. Giza garapena nola neurtzen den azalduko da fitxa 1.1ean agertu bezala.

Ondoren, GGIIko datuak dituen taula emango zaie (taldeka bana daitezke honako maila hauetan banatutako herriak: giza garapen altua, giza garapen ertaina eta giza garapen baxua).

Taula horrekin batera “Sinopsis de la degradación ambiental” izeneko edota “Índice de desarrollo relativo al género” deritzona bana daitezke, aurretiaz aipaturiko web orrian edo **AIBOan**-i eskatuta lor daitekeena txostena zentroan ez badago.

Taldeka, honakoak egin beharko dituzte:

- Taula biak konparatu eta ondorioak atera. Eskatu egingo zaie ondorio horiek herrialde ezberdinetako pertsonen eskubide eta betebeharrekin errespetuarekin (ingurumenerako eskubidea, osasunerako, sanitaterako, eta abar).



- Ostean, giza eskubide jakin bati erreparatuz (dela generoen arteko berdintasunari dagokiona, dela ingurugirorako eskubidea), indize proposamen bat egin beharko du bere izena jarrita, indize horrekin lortutako emaitzak eta indize berria GGLarekin konparatuta atera daitezkeen ondorioak. Horrela, esate baterako, giza garapenerako indize iraunkorra presta daiteke GGLaren aldagaiei “Sinopsis de la degradación ambiental” taulan azaltzen diren CO<sub>2</sub> igorpenena.

Guztien artean komentatu eta hausnarketarako aukera egongo da, batetik kontzeptuak “neurtzeko” adierazleak hautatzearen garrantziaz, eta bestetik, errealitatera pixka bat gehiago hurbiltzeko dagoen horien beharraz. Debaterako fitxa 1.2an aurkezten diren kontuak planteatu daitezke.

- Materiala:** Papera, boligrafoak eta errotuladoreak, fitxa 1.1. eta 1.2., Interneterako sarbidea edo irakasleak emaniko taulak.
- Dinamika:** Banaka eta taldeka.
- Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

## 2 Jarduera: “Aurrera pausutxo bat... giza garapenaren alde”

**Descripción:** Jarduera honen helburua, datu estatistikoen irakurketa eta interpretaziotik abiatuta, zenbait herriren egungo egoeraren gaineko azterketa bat egitea 1995eko Giza Batzarrean hartutako konpromisoei dagokienez. Horretarako, Batzar horretan hartutako konpromiso horien segimendua egiteaz arduratzen den GKEen talde batek ateratako datuak erabiliko dira. Modu horretara GKEek Batzar horietan duten betebeharrak bat betetzen da, alegia, konpromisoen segimendua egitearena (fitxa 2.1.). Datuok honako helbidean aurki daitezke: <http://www.socialwatch.org/2000/esp/index2000.html>.

Parte hartzaileak taldetan banatuko lirateke eta bakoitzari aztertu beharreko herri kopuru jakin bat banatuko litzaioke, bai beraiek aukeratu dituztelako, bai interesgarri suerta daitezkeelako. Hautaketa era bat izan daiteke giza eskubideak gehien eta gutxien errespetatzen diren herrien zerrenda bat egitea, edo betebeharrak gehien eta gutxien betetzen den herriena egitea. (Erabili beharreko datuak aurreko web orrialdean daude 99, 2000 eta 2001eko edizioetako “Metas cuantificables” atalean eta ikasleek lor ditzakete Internet bidez erabilita datu bilketarako zein aurretiaz hautaketa bat egin eta paperean emanda).



Ikasleei herri bakoitzak duen aurrera edo atzera egiteko erritmoa azaltzeko kalkuluak egin ditzaten eskatuko zaie. Horrekin batera, eta egungo ratioarekin, beraien ustez espero den emaitza zein urtetan lortuko den aipatzeko eskatuko zaie. Klasean aurkezteko, datuak eta emaitzak hobeto ikusteko grafikoak egin ditzaten eskatuko zaie.

Talde bakoitzak emaitzetan oinarrituta azalpen bat egingo du komunean, herri bakoitzean den egoera eta etorkizunerako espero dena agertuz.

Amaitzeko, herri batzuen inguruan dugun irudia emaitzekin kontratatuko da, bai eta Munduko Batzarrean hartutako konpromisoak betetzeko dituzten zailtasunak ere, hots, giza eskubideen errespetua.

**Materiala:** Datu estatistikoak, kalkulagailua, grafikoetarako papera eta fitxa 2.1.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bat.

**Bitarteko osagarriak:**

<http://www.undp.org/dpa/spanish/publicaciones/inforrapidas/NHDRs2011.pdf>

<http://www.undp.org/hdr2001/spanish/spaindic.pdf> IDH 2001

<http://etp06.bs.ehu.es/infost.shtml> Fuentes de información estadística <http://www.ine.es/ine-base/cgi/um> Estadísticas

<http://www.ine.es/htdocs/serv/estadist.htm#es> Estadísticas

<http://www.betaconsulting.com/enlaces.html> Estadísticas

<http://www.cdoce.uva.es/7.htm> Estadísticas Europeas

<http://www.ieg.csic.es/age/recursos.html#5> Bases de Datos, Estadísticas



# Fitxa 1.1.

## Giza garapenerako indizea (GGI)

GGIa bizi itxaropena indizearen batez besteko simple bat da, hezkuntza mailaren indizea eta BPG per capita errealaren indizea (PPA dolaretan) zatikizuna zati hiru indizeen batuketa doitua.

Dena den, 1999ko giza garapenerako txostena egin zenetik, hobetu egin da indizeen kalkulua, bizi itxaropenarena, hezkuntza, ...

GGIa hiru adierazletan oinarritzen da: bizitza-luzera, jaiotzean den bizi-itxaropenaren arabera neurtua; heziketa maila, helduen alfabetatze tasa (haztapena, bi heren) eta lehen, bigarren eta hirugarren mailako hezkuntzako matrikulazio bateratuaren tasa gordinaren arabera neurtuta (haztapena heren bat); eta bizi-maila, BPG per capita errealak neurtuta (PPA dolarretan).

Indizearen kalkulurako balore minimo eta maximo finkoak ezarri dira hiru adierazle horietako bakoitzari dagokionez:

Bizi-itxaropena jaiotzean: 25 urte eta 85 urte.

Helduen alfabetatzea: %0 eta %100

BPG per capita erreala: 100 dolar eta 40.000 dolar.

GGIaren edozein osagairi dagokionez, banakako indizeak neur daitezke formula orokorra aplikatuz:

$$\text{Indizea: } \frac{\text{Balioa } x_i \text{ efectivo} - \text{Balioa } x_i \text{ minimoa}}{\text{Balioa } x_i \text{ maximoa} - \text{Balioa } x_i \text{ minimoa}}$$

Esaterako, herri bateko bizi-itxaropena jaiotzean 65 urtekoa bada, herri horretarako bizi-itxaropen indizea honakoa izango litzateke:

$$\text{Bizi-itxaropen indizea} = \frac{65-25}{85-25} = \frac{40}{60} = 0.667$$

Giza Garapenerako Txostena 1999 PNUD, 159. or.



## Fitxa 1.2.

### Debaterako galdera batzuk:

- Zertarako balio dute adierazleek?
- Nola erabiltzen dira?
- Zergatik garatu da giza eskubideak neurtzeko hain adierazle gutxi?
- Eta betebeharrak? Neur ditzakegu?

### Estatistikei oro har dagokienez

- "Benetan" islatzen al dute errealitatea?
- Zertarako balio digu komunikabide ezberdinek gai berberari buruz argitaraturiko informazioa konparatzeak?
- Ba al dakigu benetan zenbaki horien atzean giza eskubideak hausten ari zaizkien pertsona andana dagoela?
- Zer dakarkigu burura egoera horrek? Borroka gaitzeko matematiketarik giza eskubideak hautsiak izan ez daitezen?



## Fitxa 2.1.

### **Nola ari da mundua aurrera pausuak ematen giza garapena lortzeko?**

*Aurrerapena mapetara igortzen.*

*Zarata handia...*

Milurtekoaren Batzarrean, munduko buruek 2015erako txirotasun larria erdira murriztuko zutela zin egin zuten. Esandakoak txirotasuna errotik desagerrarazteko aurrera pausuak neurtzeko erreferentzia ezarri zuen, 1995eko Giza Batzarrean hartutako konpromiso bat, baina betetzeko epe eta mugarik gabe. Haatik, batzar batean ere ez zen “txirotasunaren” definizio komunik eman eta horrek zailagoa bilakatzen du aurrera pausuen ebaluaketa.

Txirotasuna diru-sarrerak izan edo hauen gabezia terminoak erabilia definitu ohi da sarritan. Amartya Sen, Nobel Sariaren irabazlea, ekonomilariaren ustetan, ordea, “txirotasuna funtsezko gaitasun-gabetzea legez ulertu behar dugu, eta ez soilik diru-sarrera eskasak izatea bezala”. Irizpide horrekin, herri bateko biztanleen egoera ona bada eta hezkuntza hobea eta zerbitzu publikoetarako diskriminaziorik gabeko aukera badu, herri hori aurreratzen ari da txirotasuna murrizteko bidean.

50 herrialdeko Hiritarren Kontrolerako koalizioek txirotasuna neurtzen duten adierazleen bilakaera aztertu dute Sen-ek esandakoaren ildotik, eta finkaturiko xedeak erdiesteko gizarte politiken eraginkortasuna neurtu dute. Hiritarren Kontrolerako 2001 Txosten hori lanaren emaitza.

Txostenean diren taulek herrien kokapena agertzen dute funtsezko giza adierazleak eta xedeak betetzeko bide horretan zenbat aurreratu duten kontuan hartuta. Kontatzen den istorioak ez du amaiera onik. Azken estatistikek (1999) herri gehienak 2000rako ezarritako helburuak betetzetik oso urrun daudela adierazten dute. Aurrerapen eta atzerapenen taulak azken hamarkadako hobekuntzak erakusten ditu, baina bultzada horrek atzera egin zuen finantza-krisialdiak eraginda. Herri askotan ez da inolako aurrerapenik agertzen eta batzuk duela hamar urte baino txarrago daude.

<http://www.socialwatch.org/2000/esp/index2000.html>



# Etika



## Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Kasuak aztertzen hasi.
- Dilemak argitu eta erabakiak hartzeko gaitasuna hartzea.
- Kasuen metodologia aplikatzea ikasleak zuzenean kaltetzen duten egoeretan.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Eskubide eta betebeharrak”

**Deskribapena:** Jarduera hasi eta girotzeko, ikasleei proposatuko zaie zentroa girotzeko dauden kartelak begiratzeko eta beraien bitartez igortzen diren mezuak, irudiak, baloreak eta jarrerak era kritikoan aztertzeko. Taldeka banatu eta hurrengo saiorako posterren inguruko bisitaldi gidatu bat prestatzeko eskatuko zaie bertan den informazio orokorra, beraien ingururik hurbilenean edo mundu mailan ematen diren giza eskubideen haustea edo errespetuari buruzko datu errealekin osatuz.

Aurkezpena egingo da gainontzeko ikaskideen aurrean (errepika daitekeena beheragoko zikloetan) eta eskatuko zaie azaldutako guztiarekin berriak prestatzeko (parte har dezaketela aurkezten den lehiaketan, ikastetxeke egunkaria edo aldizkaria, eta abar), eskubide eta betebeharren gaia nagusi izango duten albisteak.

**Materiala:** Posterrak.                      **Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

### 2 Jarduera “Kasuak aztertzen”

**Deskribapena:** Kasuen azterketaren teknika zertan den azaldu egingo da adibide zehatz baten azterketarekin (fitxa 2.1.).

Lehenengo saioa amaitutakoan eta hurrengoa hastean, taldekide bakoitzak planteatzeko kasu baten zirriborroa ekarriko du. Kasu hurbila izan beharko du, lagunen arteko harremana, irakasle/ikasle, gurasoak/ seme-alabak, bikotea... bertan eskubide eta betebeharren gaiarekin lotutako dilema planteatuko da. Kasu bat aukeratu ostean, aurreko saioan emaniko urrats berberak emanaz garatuko da hautatutako hori eta ondoren, kasu bakoitza beste talde batek aztertuko du. Saioari amaiera emango zaio guztion artean komunean jarrita eta kasuen eta eskubide eta betebeharren arteko erlazioaren inguruko debate batekin.

**Materiala:** Fitxa 2.1. eta 2.2.                      **Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

**Bitarteko osagarriak:** Alfonso Caballero. Kasuen azterketarako hastapenak. Taldeka ikasteko metodologia aktiboa. Ediciones Mensajero, S.A. Bilbo, 1997.



# Fitxa 2.1.

## Kasuen azterketa

**Zer da kasu bat?** Pertsona, familia, talde edo enpresa baten bizitzan gertaturiko egoera bat deskribatzen duen erlazio idatzi bat da. Gehienetan, kasuak egoera errealetan oinarriturik daude, mozorroturik data, izen eta leku aipamenetan, geroagoko azterketan garrantzirik ez duen kontua. Kasuaren metodoa funtsean aktiboa da, eta beraz, teoria eta praktika konbinatzen diren makina bat kasutan aplikagarri.

Kasu bat, aitzakia huts bat baino ez da, honako honetarako:

- Arazo bat aztertzea.
- Azterketarako metodo bat erabakitzea.
- Alternatiba edo ekintza ikastaroak ezartzeko bizkortasuna eskuratzea.
- Erabakiak hartzea.

### 1. Nola aztertzen da kasu bat?

- 1.1. Kasua jarraian irakurri. Eztabaidatu beharreko gaiaz birpasatzeko eta sistematizatzen hasteko.
- 1.2. Kasu astiro-astiro aztertu. Gertaerak eta dedukzioak banatu, zehaztu planteatzen diren arazoak.
- 1.3. Aurretiaz sailkaturik egongo diren arazoetatik dedukzioak ateratzen hasi.
- 1.4. Oinarritzko arazoak zeintzuk diren eta nola bana daitezkeen zehaztu. Bigarren mailako zein galdera erantzun behar dira nagusia erantzunda geratzeko?

### 2. Kasu baten azterketa saioaren prozesua

- 2.1. Aurretiazko fasea: kasuaren aurkezpena.
- 2.1. Eklosio fasea: iritzi, inpresio, epai, alternatiba posibleen... eztanda. Bakoitzak egoeraren aurrean erantzuten du berak subjektiboki jasotzen duen legez.
- 2.1. Azterketarako fasea: gertaera eta den informazioa itzulia nagusitzen da subjektibotasunetik ateratzeko. Gertaeren zentzuaren bilaketa komunak aukera ematen die parte hartzaileei aztertutako egoeraren kontzientzia areagotzeko. Errealitatea aurkitzen da. Fase horretan ezinbestekoa da egoeraren egitura dinamikoa interpretatzeko garrantzitsuak diren gertaerak zehaztera heltzea. Fasearen amaiera taldekide guztiek onarturiko sintesia lortzean amaituko da.
- 2.1. Kontzeptualizazio fasea: ekintza printzipio pragmatikoak sortzean datza, transferentzia baterako baliagarri izango direnak. Baliagarritasun garantia bakarria taldearen adostasuna da.

### 3. Nola garatzen da kasu bat aplikatu ahal izateko?

1. Datuak biltzeko bideak: elkarriketa baten bitartez, gordeta dauden agirien bitartez, gertaera pertsonal zein profesionaleri erreferentzia egiten dieten idazkiak, egoeraren ohar zehatzak protagonista nagusiak edo ustekabeko lekuko batek emanda azaltzen dituztenak.

## 2. Kasu posibleen motak

- 2.1. Jazoera garrantzitsua: arazo bat edo egoera larri bat sortarazten du.
  - 2.2. Egoera baten garapena denborak aurrera egin ahala.
  - 2.3. Egoera desererosoa, pertsonala edo profesionala, norbanako batentzat une jakin batean.
3. Kasua egin eta idaztea. Kasu bati balioa ematen diona, elkarrizketa bizi eta animatu baterako arrazoia bilakatzen duena, landuko den gaia bera da historia idaztea baino gehiago. Kasu bat egiteak irudimen eta fantasia minimo bat behar du. Errazena eta praktikoa bizitza errealean gertatu den egoera bate-tik abiatzea da identifikazio xehetasunak disimulatuz. Ezer idazten hasi aurretik, komenigarria da hona-ko alderdi hauen gaineko gidoi zehatz bat egitea:
- 3.1. Nor izango da protagonista? Zer-nolako ezaugarri fisiko eta psikologiko emango diogu?
  - 3.2. Zein familia, hezkuntza, gizarte, ekonomia inguru jarriko dugu protagonistaren ondoan? Zein ego- era edo pertsonen eragin dute, epe luzean zein laburrean, egungo arazoa izatera heltzeko? Nork laguntzen du protagonista eta nor dago, egotekotan, antagonistaren alde?
  - 3.3. Zein da kausaren erdigunean dagoen arazo zehatza? Komenigarria da argi eta garbi azaltzea edo hobe da berori idaztean kamuflatzea?
  - 3.4. Interesatzen al zaigu aurretiaz irtenbide posible batzuk izatea edo soilik zuzen bat?
  - 3.5. Komenigarria al da amaieran azterketa errazteko galdera sorta bat planteatzea?
  - 3.6. Interesa al du kasuaren barru-barruan irakaspen jakin bat izatea?
4. Gomendatzeko moduko ezaugarri batzuk: kasu batek izan behar du sinesgarria, eragile, laburra, hur- bila, anbigua.
5. Ekidin behar da: behar dena baino gehiago esatea; subjektiboki interpretatzea eta idaztea tonua alde literarioan eta estilistikoan kargatuz.

## Fitxa 2.2.

### Matilderen kasua

Matilde, 23 urteko neska, 40.000 biztanledun herri batean bizi den bikote baten alaba gaztea da. Bi neba nagusi ditu eta ez da beraiekin oso ondo moldatzen. 32 urteko bat, ezkondua eta bi seme-alabarekin, aitaren lursailetan egiten du lan. Bigarrenak 29 urte ditu, sarritan esaten du "bizitza bizitzeko dela" eta printzipio horren arabera bizi da. Matilderen aita usadiozko gizona da, zintzoa, aitaren herentziarekin lursail batzuk hartu zituena, familia aurrera ateratzeko baliagarri izan zaizkionak hain zuzen. Zentzu benetan patriarkala du, beti sentitu izan da denaren erdigune: puritanoa eta zorrotza, ez du etxean berea izan ez den beste irizirik onartu izan. Bere heziketan, akaso soberan izan da agintea eta faltan maitasuna. Samurtasuna berarentzat ahulezia izan da beti. Ama, familia kultuago batekoa, urduria, suminkorra eta zorrotza da bere buruarekin. Seme-alabekin zapuztua sentitzen da eta isilean, bizitzan huts egin duela uste du. Inoiz behin izan zuen senargai bat gogoratzen du, orain duen senarra baino azkarragoa eta oraingoak baino diru gutxiagoduna. Malenkoniaz pentsatzen du mutil harekin zoriontsuagoa izango zatekeela eta horrek errudun sentiarazten du, bere erlijio printzipioen aurka doa eta.

Matilde, bere haurtzarotik, lotsati, sentikor eta desberdin hazi zen. Barne bizitza handia zuela ematen zuen, baina ez zuen apenas ezer adierazten. Sentimendu oro gordetzen ohitu zen mutirikeriatik hasita. Ezezagunen aurrean zenean, bere aitak irriarri uzten zuen: beste neskato bat nahi izango zukeen, atseginagoa eta alaiagoa.

Hamar urte zuela, bere gurasoek pentsatu zuten lagundu egingo ziola barnetegi batean bizitzeak, besteekin harremanak izaten eta herrian baino prestakuntza hobea jasotzen ere lagunduko ziola. Matilde benetan izutu arren ideiarenean, mojen ikastetxe batean sartu zuten. Hasierako hilabeteak oso gogorrak izan ziren, baina ohitzen amaitu zuen. Ikastetxea hartan bigarren mailako hezkuntza bukatu zuen.

Urte haietan zehar, bere betiko jainkozaletasunak kolpe handia pairatu zuen. Pixkanaka-pixkanaka erlijio praktikek zentzurik ez zutela pentsatzen hasi zen. Batetik, egunero derrigorrezko zirenez gero eta gehiago gorrotatzen zituen, eta bestetik, ez zuen bere hezitzaileen jarrerak eta praktika ofizialaren arteko parekotasunik ikusten: ez oso gizatiarrak, zorrotzak eta estereotipatuak. Ikastetxetik irteten denean, ideia finko bat du: bizitza bere buruan pentsatzen bizitzea eta aurreko eskema guztiak baztertzea. Orduan azaleratu zen gordetako mutirikeria guztia. Ez soilik defentsa gisa, norbere baieztapen eta bizitzeko estilo berri legez baizik. Medikuntza ikasten hasi eta aseguru bulego batean hasi zen lanean bere gastuak ordaintzeko eta burujabe izateko. Gurasoei ideia zentzurik gabea iruditzen zaie, baina azkenean onartu behar dute.

Alokatutako pisu batean bizi da beste bi lagunekin. Noiz edo noiz talde handiagoa elkartu eta gai politiko, etikoei buruz eztabaidatzen dute, bizitzari berari buruz. Matilde integraturik sentitzen da eta zoriontsu dago guztiek bere hizkuntzan mintzatzen direla igartzen duelako.

Medikuntza ikasten zuen hirugarren urtean, Miguel lagun mina izan zuen, 26 urtekoa, ikaskidea, eta bizitza planteamendu eta jarrera berdinak dituztela ohartzen da. Maitemindu eta biak elkarrekin joatea pentsatzen dute, Hegoamerikakako herri batera bi urterako. UNESCOk zenbait herri laguntzeko bekak ematen ditu eta profesional mailan finkatu aurretik izateko esperientzia aberasgarria izan daitekeela pentsatu dute.

4. ikasturteko Aste Santuko oporretan Matilde gurasoen etxera joan eta bere asmoen berri ematen die: Miguelekin bizitzera joatea udako oporrak igaro ostean. Bere ustez pertsona biren arteko konpromisoa eliza batean hartutakoa bezain serioa da, ez du bere burua atzera ezin bota daitekeen hitza emateko bezain heldu ikusten eta uste du urtebete edo bi elkarrekin bizitzen ematea beharrezkoa dela bikoteak irauteko aukera duenentz jakiteko. Denbora tarte hori igarota ez lukete inolako arazorik izango ofizialki ezkontzeko.

Bere gurasoen erantzuna gogorra izan da. Ama zurbil-zurbil jarri da, gero nerbio atake antzeko bat izan eta logelara eraman behar izan dute. Aitak leporatu egiten dio Matilderi beragatik egindako guztia, iraindu egiten du urdanga ere deitzera helduz, eta herrian esango luketenaz penatu egin da. Bere nebarik gazteenak astindu egin du eta bere abizena desondratu duela esan dio. Matildek negar batean alde egin du.

Bost egun pasa ostean, herrian honakoa dioen gutun bat jaso dute:

*24 urte daukat eta neure bizitza egingo dut. Gaurtik aurrera Miguelekin biziko naiz. Sentitzen dut hala izan behar izatea, baina ez didazue beste aukerarik eman. Uste dut bizitzak neure buruarekin eta ez zuen printzipioekin zintzoa izateko eskatzen didala.*


*Aurreko egunekoarekin alaba bat galdu duzuelakoan nago. Neu, pertsonalki, familiarik gabe sentitzen naiz.*

Egun berean, Matildek elkarrizketa bat du bere bulegoko nagusiarekin. Ondo moldatu izan dira: aita gogorarazi izan dio beti. Tonu lehor, tentsu eta argi eta garbi zorrotzaz, enpresak bere zerbitzuak ez dituela behar esan dio kontu handiz hautatutako hitzak erabiliz. Ez dago pisuzko arrazoirik, baina izandako bakarrizketa laburrean Matilderen tonu ez oso mantsoarena eta azken egunotako errendimendu mailako jaitsiera atera dira.

## Galderak:

- Zein da kasuaren arazo nagusia?
- Zein puntutaraino defenda daiteke Matilderen jokaera? Non hasi eta amaitzen dira alaba gisa dituen eskubide eta betebeharrak?
- Zeintzuk dira bere psikologian diren puntu gogor eta ahulak?
- Zein alderdik dute zerikusia historiak amaiera hori izateko?
- Zer aholka lekieke gurasoei une konkretu horretan?
- Zein epai merezi du kasuan den pertsonaia bakoitzak? Zein alderdik egiten dute bakoitzaren jokaera defendagarri edo baztergarri?
- Plantea ezazue Matilde eta bere aitaren arteko Role-playing bat, bakoitzak bere ikuspuntua azaldu eta jarrerak argituko diren jokoak.

# Filosofia



MUNDUKO  
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA



## Helburuak

- Banakako zein talde mailako eskubide eta betebeharren azterketa egitea.
- Zorroztasun intelektuala garatzea oinarrizko bitarteko gisa honakoak erabiliz: informazio bilaketa, azterketa, kontrastea eta ebaluazioa.
- Arrazoiaren erabilera autonomoa baloratzea giza jarduera, banakakoa eta talde mailakoa interpretatzeko ahalegin intelektual gisa.
- Kasu zehatz eta errealezko konponbideak planteatzea adostasunaren bitartez.
- Ikerketa sustatzea bitarteko legez Internet erabilia.
- Ikasleen bizitzara pentsatu eta jarduteak bertan diren eskubide eta betebeharrak batzuen exigentziaren arabera planteatzen duen nobedadea helaraztea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Nire eskubideak, bere eskubideak ... gure betebeharrak”

**Descripción:** Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala Irakurri (DUDH) (<http://www.unhchr.ch/udhr/lang/spn.htm>). Taldeka, oinarrizko eskubideak, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala izan zenekeo data eta eman zen uneko egoera sozio-politikoak azaltzen dituen murala egingo da. Jadanik onartuta dauden eskubide horiei Deklarazioan egon beharko luketen betebeharrak sartzeko proposamena egingo diete.

**Materiala:** Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala; kartulinak eta errotuladoreak.

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bat.

## 2 Jarduera: “Eskubide eta betebeharrak”

**Deskribapena:** Ikasleen artean kasu praktiko batzuk banatuko dira (fitxa 2.1.), bertan eskubide ezberdinak hautsita azaltzen dira. Taldeka, zein den hautsita dagoen eskubidea adierazi eta Deklarazioaren zein artikuluan agertzen den esateko eskatuko zaie. Guztion artean komentatzen igaro aurretik, talde bakoitzak agertu zaizkion eskubideek, pertsona zein instituzioentzakoek, inplikatzeko erantzukizun edo betebeharrak adierazi beharko ditu.

*Garrantzitsua da talde txikietan partaide guztien ahotsa entzutea eta erabakiak adostasunean hartzea.*

Jarraian, bere azterketaren emaitzak aurkezteko era pentsatuko du azalpenarekin batera izateko (panela, irudia, eskema...)

Ikusi duzue gehienak irudizko kasuak dira, baina funtsezko eskubide baten haustea islatzen dute. Tamalez munduan leku askotan gertatzen da hori. Jarduerari amaiera emateko, irakasleak bost kasu emango dio talde bakoitzari. Eskubideak hausten diren bost kasu erreal aurkitu beharko duzue. Azkenean talde bakoitzak kasu errealak azalduko dizkie gainontzeko ikas-kideei egoera horiek konpondu eta ekiditeko era batekin batera. Behar duzuen informazioa honako web orrialdeetan duzue:

Amnistía Internacional: <http://www.a-i.es> / <http://www.edai.org>

Derechos: <http://www.derechos.org>

**Materiala:** Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, kasu praktikoak (fitxa 2.1.), Internet, kartulinak eta errotuladoreak.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

## 3 Jarduera: “Hiritarren eskubideak eta betebeharrak”

**Deskribapena:** Parte hartzaile guztien artean hiritarren betebeharren dekalogo bat egin eta panel batean jarri. Ikastetxe edo ikasgelarako eskubide eta betebeharren dekalogo ere egin daiteke, eta gero panel batean material honetan aurkezturiko poster bildumaren ad hoc agertu.

**Materiala:** Kartulinak, errotuladoreak eta poster bat.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.



## Fitxa 2.1.

### Kasu Praktikoak

#### 0. Kasua Adibidea

Estatu batek erabaki du, terrorismo susmoagatik akusazio berbera izanik, pertsona bat hiritarra edo atzerritarra den kontuan izanda, auzitegi zibil edo militarrek epaitua izan daitekeela. Terrorismoaren mehatxua dela eta, estatu horrek berorrek beharrezko deritzo lege batzuk aldatzeari, horien arabera terrorismoagatik susmagarria den pertsona bat mugarik gabe atxilotu daiteke kargu barik edo torturak paira ditzake.

#### HAUTSITAKO ESKUBIDEA

Berdintasun egoera batean, auzitegi independente eta inpartzial batek publikoki eta justiziaz entzuteko eskubidea bere kontrako edozein salaketaren azterketa egiteko maila penalari dagokionez.

10 Y 11 Artikuluak.

#### 1 Kasua

Zure tutoreak antza arrazoirik gabe zigortu zaitu. Azalpenak eskatzean, zeuk lagun batentzat bera kritikatzat idatzitako gutun bat erakutsi dizu. Nonbait, zure karpeta zabaldu du Gorputz Heziketako klasean zinen bitartean.

#### 2 Kasua

Zure familiak lursail txiki bat du hirian. Udaletxeak bertan erostetxe handiak eraikitzea erabaki du eta desjabetu egin zaituzte trukean ezer jaso gabe.

#### 3 Kasua

Zure lagun batek, Anek, lana aurkitu du janari azkarra deritzon leku horietako batean. Enkargatuari hauteskunde sindikalen inguruan galdetzean, aitzakiekin erantzun dio. Hurrengo egunean inolako arrazoirik gabe kaleratu dute.

#### 4 Kasua

Aurten erdira murriztu da zure ikastetxerako matrikulen kopurua, eta zure gelako bost laguni debekatu egin diote ikastetxe horretan ikasten segitzea eta lanean hasi behar izan dute hamasei urte besterik ez izan arren.

## 5 Kasua

Zure ahizpa/arreba hepatitisak jota gaixotu da. Gaixotasunak luze dirau eta zu eta zure gurasoak ez ote den hilko beldur zarete, baina bizi zareten lekuan ez dago medikurik ezta osasun langilerik ere, hortaz, inork ezin du sendatzen lagundu.

## 6 Kasua

Oso gustuko duzu literatura eta horretan aritu nahi duzu. Zure ametsa filologia ikastea da eta ahal izanez gero, idazten lan egitea. Haatik, zure gurasoek Ingeniaritza ikastera behartzen zaituzte zure gogoen eta irakasleen aholkuen kontra.

## 7 Kasua

Matematika azterketa ona egin duzu eta Ongi eta Bikain arteko nota espero duzu. Irakasleak notak ematean Gutxi bat duzula ikusi duzu eta ez duzu zergatia ulertzen. Berarekin hitz egitera joan zarenean azterketa bat erakutsi eta berrikusteko ohiturarik ez duela esan dizu. Ikasketa Buruarengana jo duzu, baina hori ez dela bere eskumena esan dizu. Haserre, zuzendariaren bulegora joan zara, baina irakasleak esandakoaren aurrean ezin dela ezer egin esan dizu legeak bere arloaren gaineko boterea ematen diolako.

## 8 Kasua

Zure hirian etxebizitza guztiak, dendak, ospitaleak, eta abar estali dituen bat-bateko lurrikara egon da. Biztanle guztiak etxe eta lanik gabe geratu dira. Janari, ur edangarri eta botikarik ez dagoenez, ondoko hirira joatea erabaki duzue, inolako kalterik ez duena izan. Alde egiteko egunean, ondoko hiriko agintariek kamara eta polizia jositako harresi bat jarri dutela ikusi ahal izan duzue.

## 9 Kasua

Zure herrian erlijio katolikoa, nahiz eta ofiziala beste bat izan, praktikatzen duzu. Debekatuta duzu meza-tara joatea, publikoan zein pribatuan otoitz egitea. Agindutakoa bete ezean kartzelaratuko zaituzte.

## 10 Kasua

Zure herriko gobernua gehiengo eztabaidaekin batek hautatu du. Argudio hori erabiliz, etorkizuneko hauteskundeak kentzea eta beti herriaren alde gobernatzea erabaki du.

### **Kasua 11**

Zure osaba hil ostean, bere alarguna (zure izeba) ezer gabe geratu da; ez zuten diru askorik aurreztuta eta berak ez du sekula lan egin. Orain, 70 urterekin, ez du aurrera ateratzeko modurik ez bada besteen limosna.

### **12 Kasua**

Gau batez zure lagunekin zaude parkean hitz egiten. Bat-batean, lagun talde bat motorrez hurbildu eta iraintzen hasi da. Zure lagun bat jo eta beraien "lurraldetik" alde egiteko esan dizuete. Kontua asteburu batzuetan errepikatu da.

### **13 Kasua**

Haur bat Gibraltargo itsasartan jaio da, patera batean. Hara heltzean, ez zaio inolako nazionalitaterik aitortu. Bere gurasoak euren herrira bidali dituzte, baina itzultzean aginpideek haur hori atzerritarra dela esan diete eta ez ditu herri horretako eskubideak.

### **14 Kasua**

Zure lagunekin izandako elkarrizketa batean askatasunari buruzko zure iritzia eman duzu. Hurrengo egunean, poliziak kartzela-eskola antzeko toki batera eraman zaitu bertan egunero zuk defendatzen zenituen ideiekin zerikusirik ez dutenetan hezten zaituzte konbentzitu arte; orduan askatu zaituzte.

### **15 Kasua**

Zure lagun bat eta biok udan lan egitea erabaki duzue eta hipermerkatu baterako hartu zaituztete. Hiru hilabetetan hipermerkatuko zehar kutxan lan egin duzue. Uda amaitutakoan ordaindu egin dizuete. Harritu egin zarete ikustean zure lagunari erdia ordaindu diotela lan berdina egin badu ere.

### **16 Kasua**

Biologia klasean taldeka lan bate egiteko agindu dizuete. Zure lau kideek "kanpo" lan guztia egin dute: begetalen laginak hartu dituzte, ezaugarriak deskribatu eta herbarioa egin dute. Zuk lanaren laburpena eta ondorioak ordenagailuz pasatu besterik ez duzu, irakasleak bihar eskatuko duena hain zuzen. Hala eta guztiz ere, zinemara joan zara eta zure taldekideek agindutakoa ez duzu egin. Biharamunean, esku-hutsik klaseratu eta zure taldeko guztiei ez zaizue arloa gainditu.

### 17 Kasua

Guda da zure herrian. Egun batean militar talde bat heldu da zure ikastetxera eta sorterrriak behar zaituela esan dizue. Klase osoa erreklutatu dute.

### 18 Kasua

Ikaskide batek bere diru-zorroa lapurtu izana leporatu dizu. Ez zara erruduna eta badakizu gezurra dela. Kasua aztertzeko batzorde bat era dadin eskatu duzu eta lortutakoan batzordeko zuzendaria bere aita dela ikusi duzu, eta jakina, bere semea zu baino gehiago sinistu du. Ikastetxetik bota zaituzte.

### 19 Kasua

Karrera amaitu ostean, lagun bat urtetan maiteminduta duen bere neskalagunarekin ezkonduko da. Egun batean udaletxeko gutun bat jaso eta zigor ekonomiko gogorrek nahi ez baditu, ezkontzea debekatuta duela esan diote.

### 20 Kasua

Batxilergoko azken urtea amaitu duzue. Zure lagunak onenak zureak baino nota hobeak ditu. Zoritxarrez, bere familiak ezin dio karrera ordaindu. Azkenean, zu aukeraturiko karrerari hasi zara eta bere lanari hasi da.

### 21 Kasua

Zure laguna eta biok supermerkatu batean sartu zarete. Konturatu gabe, zure lagunak zerbait lapurtu, korrika hasi eta ihes egin du. Supermerkatuko jabeak harrapatu egin zaitu eta zure lagunaren datuak eskatu dizkizu. Ez dizkiozu eman nahi. Polizia helduanean supermerkatuko biltegira eraman eta han joka hasi dira nahi dutena esan arte. Esan ezean, mehatxatu zaituzte, gero eta txarragoa izango da. Sare elektrikora konektaturiko kable batekin hitz egin arte erreko zaituztela mehatxatu zaituzte.

### 22 Kasua

Norbaitek pintada bat egin du ikastetxeko orman. Tutoreak esan dizuenean, zu seinalatu eta seguru dagoela zeu izan zarenean esan du, eta nahiz eta ezin izango duen inoiz frogatu oso seguru dagoela. Zin egin dizu ahal duen guztia egingo duela frogatzeko. Zuk ez duzu pintada egin, eta ez dakizu nor izan den, baina salaketaren ostean, kide guztiek zu zarela uste dute eta irakasleek etengabe egia esan dezazula esaten dizute.

### 23 Kasua

Lau hilabete daramazu oso gustuko duzun mutil batekin irteten. Egun batean klaseak amaituta etxera heldu eta egun horretan gurasoek zure senarra izango dena ezagutuko duzula esan dizute. Orduan etxera sekula ikusi ez duzun hamasei urteko mutil bat heldu da bere gurasoekin. Egongelan kafea hartu bitartean zure eta bere gurasoek ezkontzarako eguna eta ordua adostu dute.

### 24 Kasua

Zure eskualdean Natur Erreserba baten ondoan zentral nuklearra egingo dute, eta zu ikastetxe ezberdinetako ikaslek antolaturiko manifestazio baketsu batean parte hartu duzu obrak gelditu eta energia berre-rabilgarriak erabil ditzaten eskatzeko. Atxilotu eta kartzelara eraman zaituztete.

### 25 Kasua

Zure gurasoek zure herrian den multinazional bateko enpresa ezagun batean lan egiten dute. Egun batean enpresa itxiko dela esan dute latinoameriketara eramango dutelako. Zure gurasoek lana galdu dute, etxea saldu behar izan duzue eta alokairuan bizitzera joan berogailurik ez eta guztientzako logela bakarra duen etxe batera.

### 26 Kasua

Zure familia eta zu beste herri batera joan zarete bizitzera. Han eskola berri batera joaten hasi zara. Historia irakaslea heldu eta Antoñete deitu dizu “Espainiar guztiak toreroak direlako”, irakurtzen eta idazten dakizun galdetu dizu eta ea telebista ezagutzen duzun. Ikaskideek herri “azpigaratu” batean bizitza nolakoa den galdetu dizute.

### 27 Kasua


Zure amak ustelkeria kasu handi bat aurkitu du zure herriko gobernuan: Hirugarren Mundua laguntzeko jasotako dirua Defentsa Ministerioan armatarako inbertitzen ari da, eta gobernukide askok ere dirua patriketan gordetzen du. Komunikabide batean salatu eta polizia gainera etorri zaio. Zure familia eta zu Frantziari ihes egin duzue, baina mugan jendarmeez atxilotu eta espainiar agintarien eskuetan utzi zaituztete zuek egoeraren berri eman diezuen arren.

### 28 Kasua

Zure lagunek eta zuk astelehenero klaseko egoera eta konponbide posibleei buruz hitz egiteko geratu zarete. Jakin bezain laster, irakasleek galarazi egin dizkizute bilerak ikastetxean ez ezik kanpoan ere. Ohartarazi dizute, bilerek bere horretan segitzen dutela jakitekotan zigortu egingo zaituztetela.



# Historia



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA



## Helburuak

- 1978ko Konstituzioa aztertzea eskubide ekonomiko, sozial eta kuturaletatik zein Giza Garapenerako Batzarretik abiatuta.
- Parte hartzaileak Estatu Batuetako Biltzarretara hurbiltzea.
- Honakoen inguruan kritikoki hausnartzea:
  - Gure askatasunak eta eskubideak bermatzeko Estatuak duten beharra.
  - Interes publikoa duten kontuez hiritar guztiok arduratzea.
- Historia gizartea aldatzeko tresna gisa ulertzea.
- Hitz egin, argumentatu eta kritikatzeko gaitasuna garatzea.
- Iritzi ezberdinen aurrean jarrera malgua eta adostasunezkoa sustatzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Zein giza eskubide?”

**Deskribapena:** Parte hartzaileei 1978ko Konstituzioa Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kuturaletatik zein Giza Garapenerako Batzarretik abiatuta aztertuko dela azalduko zaie ([http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/a\\_ceschr\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/a_ceschr_sp.htm)). Horretarako, taldeak egin eta bakoitzari Paktuko artikulua ezberdin bat emango zaio (6.etik 15.era) eta Konstituzioko artikuluen kopia (14.etik 55.era) (<http://alcazaba.unex.es/constitucion/indice.html>). Eskatuko zaie taldeka karta bietan onetsiriko giza eskubide eta betebeharren azterketa konparatiboa egiteko. Guztien arteko elkarrizketa errazteko, kartulina batean Konstituzioan argi jasota dauden Deklarazioko alderdiak eta ez daudenak bi zutabetan zerrendatuko dituzte. Azalpena komunean egiteko adostasunez hautatutako pertsona bat arduratuko da.

Ondoren, berriro taldeka, eskubide horiek Estatuetan dakartzaten betebeharrak aztertzeko eskatuko zaie (Paktua eta Konstituzioaren amaieran), bai eta hiritarrengan dakartzaten betebeharrak ere. Komunean jarri eta hauek ez funtzionatzearen arrazoiak eztabaidatuko dira eskubideak egoitearen behararekin batera.

**Materiala:** 1978ko Konstituzioa, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Paktua.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

## 2 Jarduera:

### “Giza garapenerako gailurra”

**Describapena:** Lehenengo eta behin, giza eskubideen bilakaerari buruzko testu bat irakurriko da (ikus fitxa 2.1.) eta ikasleei testua lehenengo, bigarren eta hirugarren belaunaldiko eskubideak seinatuz, bai eta testuak aipatu eta beraiek ezagutzen dituzten Batzarrak seinatuz ere komentatzeko eskatuko zaie.

Ostean, Batzar jakin batean arituko direla esango zaie: 1995ean Kopenhagen eginiko Giza Garapenerako Munduko Batzarra. Batzar horretan Estatuak giza garapenaren alde lan egiteko 10 konpromiso hartu zituzten.

Orain, rol jokoaren bitartez, konpromiso horiek nola bete erabaki dezaten eskatuko zaie.

Horrela, ikasleak taldeka banatuko dira eta esango zaie beraien herria, Gobernu Kontseiluaren bilera baten ostean, erabaki duela hurrengo legealdian Kopenhageko Munduko Batzarreko konpromisoak bete nahi dituela eta herrian garrantzirik gehien duten sektoreak deitzen hasi da adostasunez onesteko konpromiso horien arabera udal aurrekontuak. Aurrekontua 600.000 eurotako da.

Talde bakoitzak Kopenhageko Batzarra, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaletako Nazioarteko Pak-tua eta Konstituzioko hamar konpromisoak izango ditu.

Rol<sup>1</sup> jokoaren xedea eta funtzionamendua azalduko zaie:

- a) Xedea, guztion artean eta adostasun osoz, udal aurrekontua nola gastatu erabakitzea da.
- b) Talde bakoitzak bozeramale bat hautatuko du osoko bileretarako. Osoko hiru bilera egongo da, bi taldeak nola doazen jakiteko eta hirugarrena talde bakoitzak erabakitako azaldu eta besteak konbentzitzen saiatzeko. Horretarako argumentuak ondo eginda egongo dira eta ezin ahaztu dezakegu Giza Batzarreko hamar puntuetako batean oinarriturik egon beharko dutela. Komenigarria da ez ahaztea Konstituzioak eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaletarako Nazioarteko Paktuak eginiko lana. Osoko bilerak deialdia egin duen alkatetza taldeak koordinatuko ditu.
- c) Argitu beharra dago taldeen artean adostasunera heldu ezik, erabakia dagokion instantzia autonomi-koak hartuko duela.

Jokoaren ostean, ikasleei azalduko zaie asmoa ez dela jokoan egoera bat perfektuki antzeztea, hausnarketa eta zenbait konturen gaineko debata erraztea baizik. Kontu horiek dira:

- Gure lehentasunak errekurtsoak bilatzeko orduan.
- Guru irizpideak defendatzeko erabiltzen ditugun argumentuak.
- Helburu komunak dituzten talde eta erakundeek sortzen edo sor ditzaketen itunak.
- Instituzio Publikoen aurrean indar egiteko aukera (lobby politikoa).

**Materiala:** Irakurketa giza eskubideen bilakaera (fitxa 2.1.), Giza Garapenerako Munduko Batzarreko Konpromisoak (fitxa 2.2.) eta rolen (fitxa 2.3.) ganean.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

**Bitarteko osagarriak:** <http://constitucion.rediris.es/codigo/constitucion/ce1978.html>  
<http://www.unhchr.ch/udhr/lang/spn.htm>

<sup>1</sup> Giza garapenerako urratsak, gazteen papera justiziaren lanean. Espainiako Gazteen Kontseilua, Madril 2001, 48-51 orr.

## Fitxa 2.1.

### Giza eskubideen bilakaera

Frantziar Iraultzaren ostean, XVII. Mendearen amaieran, eskubide zibil eta politikoak onartu ziren- lehenengo belaunaldia-, gizartean borroka handiak gertatu ostean, kontzeptua zabaldu egiten da eskubide ekonomiko eta kulturalak ere onartuz – bigarren belaunaldia- eta ez da onartu 1986 arte, Nazio Batuen Asanblada Orokorrean onetsi arte, garapenerako eskubidea giza eskubide bat gehiago legez elkartasun eskubideak edo hirugarren belaunaldikoak izenez ezagutzen direnekin batera (bakerako eskubidea, ingurumena, ...). (Azken Konstituzioa onetsia izan zen data gogorarazten da). Harrezkero, giza garapenaren kontzeptua aurrera doa, batetik Nazio Batuen Garapenerako Giza Garapenaren Txostenei eta 90eko hamarkadan izandako Biltzar eta Batzarrei esker, gobernu eta giza erakundeek ekintza programa zehatzak hausnartu, definitu eta ezartzeko aukera ematen dutenak Giza Garapenean aurrera egin ahal izateko.

## Fitxa 2.2.

### Giza Garapenerako Munduko Batzarraren konpromisoak.

Batzarraren hamar konpromisoak honakoak izan dira:

- d) Garapena gizakira bideratuta.
- e) Txirotasunaren aurkako erasoa.
- f) Langabeziaren kontrako borroka.
- g) Gizarteratzea.
- h) Giza duintasun, berdintasun eta zuzentasunarekiko errespetu osoa.
- i) Hezkuntza eta osasunerako aukera unibertsala.
- j) Afrikarako laguntza.
- k) Giza xedeak egitura egokitzean.
- l) Giza Garapenerako errekursoak areagotzea.
- m) Giza Garapenerako lankidetzaren indartzea.

## Fitxa 2.3.

### Rolak

Dinamika garatzen den herrietako egoeretara egokitu daitezke rolak errealitatetik hurbilago dagoen jarduera bat izan dadin.

Komenigarria litzateke proposaturiko rolez gain dinamikaren garapenaren gaineko oharrek jasotzeaz arduratuko liratekeen begiraleak egotea: parte hartzaileen jarrera (berotasuna, geldotasuna, inposaketa, entzutea, ...), talde ezberdinen arteko itun posibleak, nagusitu diren taldeak eta erabilitako bitartekoak. Kontu horiek ondorengo debataren onerako izango dira.

#### 1 Rola: Langabetuen elkarte; “Erritmo onean”

Langabezia ezbeharra da herrian, herritar aktiboek %10ak pairatzen du. Duela bost bat urtetik ikusi ahal izan da ez dela apenas lanposturik sortu, tailer txiki askok itxi behar izan dute eta enpresa handiek gero eta jende gutxiago eta adituagoa behar dute. Horrek gizon eta emakume asko baztertzeko ditu. Langabeziaren arazo honek beste batzuk dakartza, esaterako etxebizitza duinarena. Zuen kezkarik handiena lanaren gutxitzea da, zuen ustez gutxienez, lana sortzeko aurrekontuaren %60a. Ez dituzue ulertzen elkartasuna beste kausa batzuekin bilatzen duten erakundeak.

#### 2. Rola: Kolonbiaren aldeko plataforma; “Bizitza eta duintasunaren alde”

Herri horrek bizi duen egoerak nazioarteko laguntza behar du: langabezia handia, herri indigenen bazterketa, paramilitarrek, gerrillek edo multinazionalen interesek botatako milako lagun, deklaratu gabeko gerrak eragindako milaka hildako... Uste duzue gure bizi-maila eta gure enpresa batzuetako interes ekonomikoak beste batzuen artean, Kolonbiako egoeraren zergatiak dira. Gainera bada bere interesak direla kausa egoera hori mantentzen duten nazio mailako oligarkia bat. Zuen ustez bada Udaletxeak fondo publikoekin erantzun eta aurrekontuko %40a Kolonbiarekin lankidetzan aritzeko eta %20a globalizazio ekonomikoak herri horretan eta beste askotan eragiten ari denaren inguruan sentibilizatzeko garaia. Espainiar gobernuak bete egin ditu 95eko hauteskundeetan emaniko hitzak, konpromisoa hartu zuen BPG-aren 0,35 legegaldiaren lehenengo urtean emateko eta jakitera eman du aurreko soilik emango duela BPG-aren 0,26 garapenerako, hori aldatu beharra dago eta guk, gure herritik, horrela izan dadin lagundu nahi dugu.

#### 3. Rola: Gazte taldea “Gizarte libertarioa”

Gazteak normalean Udaletxeko giza politiketatik kanpo geratzen dira eta bazterte egoerak bizi ohi dituzte: etxebizitzarako aukera, lan duinerako aukera, lan-prestakuntza egokia. Horrek guztiak frustrazioa eta itxaropen gutxi eragiten ditu eta ez die gazteei helduarorako aukerarik ematen. Gazte talde honetan aisialdirako jolas-jarduerak antolatzen ditugu alternatiba osasuntsuak eskainiz. Ohiko eskolaren prestakuntza alternatiboa ere eskaintzen dugu asanblada gisara. Gure ustez aurrekontuaren %60ak izan behar du gazte politiketarako.

#### 4. Rola: Alkatetza “udaletxe txit gorena”

Herritarrek eskatzen dituzten politikek sortu behar dituzte lana, etxebizitza duina, emakumeentzako lan-aukera, gazteen partehartze handiagoa... Gure lehentasuna herri-tarrek dugun konpromisoa da eta gero lagundu ahal izango ditugu garatzen ari diren herriak. Zenbait ekimen burutzeko ekonomia errekurtsoen eskasia dela eta, finantzaketa pribatuak izatea posible dela uste dugu.

Egia da, esate baterako, etxebizitzaren kasuan gazteentzako eta errekurtsu gutxien dutenentzako etxebizitza babestuak sustatu behar ditugula. Baina ezin dugu ahaztu kalitatezko pisuak eta txaletak ere eraiki behar ditugula diru-sarrera gehiago duen jendea erakarri eta zerbitzuen sektorean aberastasuna ekar dezan.

Gure ustez, aurrekontuaren %50a industria instalazio berriak sortzeko behar du izan. %7a babes ofizialeko pisuak eraikitzeko. %10a azpiegitura eta errepideetarako. %3a gazte sustapenerako politiketarako. %3a emakumea sustatzeko politiketarako. %1,9a hezkuntza zentroetarako. %0.1a garatzen ari diren herrietarako eta %10a udal soldatetarako.

#### 5. Rola: Enpresarien elkarte “Merkatuak hedatzen”

Garapen posible bakarra soilik hazkunde ekonomikoarekin zerikusia duena dela uste dugu. Egia da gero eta hazkunde ekonomiko handiago izan, orduan eta diru gehiago izango dute enpresariak, langileak eta herriak berak. Gainera, lanpostu berriak sortzeko aukerak areagotzen dira. Ziurta diezazuekegu giza ikuspegia dugula gure etorkizunean. Gazteek praktikak egin ditzakete enpresetan, horrek euren prestakuntza eta lan-munduan etorkizunean sartzeko aukerak errazten ditu.

Garapenean ari diren herrienganako elkartasuna dela eta, gu ari gara jadanik duela denbora luze laguntzen. Adibidez Kolonbiarekin, GKEen laguntza behar duen herri aberatsa baino, atzerriko kapitalaren eskuartzea behar duena. Gure herrian industria ondo badoa, herritarrak ere ondo daude bai eta Kolonbiakoa ere.

Herriaren gastua %70ekoa izan behar du gure industriak laguntzeko udal zergak murriztean esaterako. %20a ere gazteen prestakuntzan, soilik gure industrietan behar dituzten alorretan.

# Biologia



MUNDUKO  
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

# Helburuak

- Giza jokaeren inguruko zentzu kritikoa garatzea.
- Zalantzetan jarri eta eztabaidatzea unibertsal bilaka ezina den aurrerapena edo pertsonen dituzten aukera ekonomikoen arabera diskriminazioa eragin dezaketean jardueren zientifikoen inguruan.
- Analisi eta informazio sintesiaz gain, taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Ikaste esanguratsua erraztea norberak duen zenbait giza eskubideren unibertsaltasun ezari buruzko esperientzia.
- Hezkuntza parte hartzaile eta bizipenezkoagoa suspertzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Genoma, gizatiarra?”

**Descrribapena:** Jadanik gaia gelan landuta dago. Jarduerarako ikasleei, binaka, fitxa 1.1ean azaltzen diren kontzeptuetako bat hautatu eta ezagutzen dutenarekin definizio bat egiteko eskatuko zaie.

Guztion artean laburki komentatzen da eta jarraian, ikasleak talde bitan banatzen dira. Bakoitzak fitxa 1.2an azaltzen diren berrietako bat eguneratzen saiatu beharko du. Gero aurkeztu egingo dute eta segidan komentatu.

Ekarpenik ezean, azken hiru urteotako egunkari eta aldizkarietako zatiak banatuko zaizkie genoma gizatiarra eta klonazioaren identifikazio osoa izateari begira. Ostean, genoma gizatiarraren ikerketaren inguruan, pertsona guztien artean sustatu eta errespetatu beharreko eskubide eta betebeharrei buruz mintzatuko dira, bai eta hori guztia kontrolatzeko proposamenei buruz ere.

**Materiala:** Fitxa 1.1, fitxa 1.2 eta genomari buruzko artikulak.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

### 2 Jarduera: “Aurrerapen zientifikoak, giza atzerapenak ote?”

**Descrribapena:** Gaiari heltzeko jardueraren izenburua den galdera egingo da. Ondoren, ikasleei aurrerapen horien inguruan hausnarketa egin dezaten eskatuko zaie eta dinamizatzaileak jasoko duen ideia mordo botako da geroago erabili ahal izateko.

Jarraian, Lee M. Silver-ren “La vuelta al Eden” liburuaren zatia banatuko zaie ikasleei eta autorearen inguruko aipamen biografikoa eman ostean (ikus fitxa 2.1.), binaka irakurtzeko eskatuko zaie aurretiaz azalduta, ondoren Alicen gurasoak erruztatu izango diren epaiketa simulatu egingo dela.

Behin testua irakurrita, taldea bi jarrera azalduko duten taldetan banatuko da. Jarrera bakoitzerako honakoa prestatu beharko da:

1. Gurasoen eskubidea seme-alabentzat egokiena izango dena aukeratzearen aldeko argumentuak.
2. Jarrera horren kontrako argumentuak.

Epaietaren itxura egingo da eta ondorio batera iritsi. Azkenik, prozesua eta erabilitako argumentuak baloratuko dira eta debatea fitxa 2.3an azaltzen diren galderen arabera bideratuko da.



- Materiala:** Fitxa 2.1., 2.2. eta 2.3.  
**Dinamika:** Banaka eta taldeka.  
**Iraupena:** 50 minutuko saio bat.

### 3 Jarduera: “Hiesa: osasuna edo patenteak?”

**Describapena:** VIH-aren kontrako tratamendu eraginkor bat aurkitzeko ikerketa, jende kopuru handi baten onerako hasitako proiektua argi eta garbi bilakatu da pertsona eta herrien aukera ekonomikoaren arabera beste baztertze era bat gehiago.

Hausnarketarako honako dinamika hau proposatzen da:

#### *Aurretiazko prestaketa:*

Hiru boluntario eskatuko da eta horiekin dinamikaren lehendabiziko zatia prestatuko da, alegia, kasu honetan jarraituriko prozesuaren aurkezpena. Pertsona bat VIHaren aurkako tratamendu eraginkor bat diru publikoa erabiliz aurkitzen saiatzen ari den talde zientifikoaren ordezkaria izango da, eta behin hori lortuta, Patente eta Marken bulegora joko dute. Orduetik aurrera enpresa farmazeutikoak botika egiteko prest izango dira eta Estatuarekin harremanetan jarriko dira produktua eskaini eta saltzen hasteko. Boluntarioek prozesua islatzeko era erabaki beharko dute, ordezkariak, kontuak... eta errealitateak ahalik eta hurbilen den irizpidea erabilita botikak banatzeaz arduratuko direnak izan beharko dute. Informazio bilketa eingo da: <http://www.pnud.org.ve/temas/sida.asp> • <http://www.undp.org/dpa/spanish/sida.htm> • <http://www.aciprensa.com/sida/ultimascifras.htm> • <http://www.revistadelsur.org.uy/revista.119-120/Tapa3.html>

*Gainontzeko taldekideei*, aurrekaririk jarri gabe, munduko mapa bat aurkeztuko zaie eta ezagutu nahiko luketen herri bat hautatzeko eskatuko zaie. Aurretiaz, herri bakoitza soilik kopuru jakin batek aukeratu ahal izango duela esango zaie; banaketa VIHz kaltetu gehien duten herri guztiak bertan izan eta bisitarien proportzioa eritasunak jota direnen proportzioaren arabera egingo da (ikus datuak: <http://www.aciprensa.com/sida/ultimascifras.htm>). Segidan, aukeratutako herrikoak izatera igaroko direla jakinarazi. guztiak VIHak kutsatuta daudela esango zaie eta gaixotasuna ez garatzeko tratamendua hartu beharko dutela; botika eskura dute. Herri bakoitzeko ordezkari batek jasotzera joan beharko du. Aurretiaz, hiru ontzi duen mahai bat prestatuko da; bat hutsik, beste bat behar den botika zahartuta duela eta hirugarrena behar den botikarekin. Ordezkari bakoitzak nahi duen ontzia aukeratzeko eskubidea izango du, baina herri horiek tratamendua jasotzeko duten benetako aukeraren arabera emango zaie. Ordezkari bakoitza bere herrira itzuli eta guztien artean dinamikak sortarazi diena adierazteko hitz, esaldi edo sinbolo bat hautatuko dute.

Eztabaida bat proposatuko da fitxa 3.1ean diren ideiekin.

- Materiala:** Ontziak, etiketak, errotuladoreak, kartulinak eta fitxa 3.1.  
**Dinámica:** Taldeka.  
**Iraupena:** Saio bakarra.

**Iradokizunak:** Proposatutako dinamikarekin hasi beharrean, Hiesa eta enpresa farmazeutikoei buruzko bibliografian proposaturiko artikuluren bat irakurriz hasiko da.

#### **Bitarteko osagarriak:**

<http://www.aciprensa.com/sida/ultimascifras.htm> • <http://www2.netexplora.com/buffer/genoma.html>  
[http://www.bioetica.org/proyecto\\_genoma.htm](http://www.bioetica.org/proyecto_genoma.htm) • <http://genoma.entornomedico.org/noticias.htm>  
<http://www.monografias.com/trabajos/genetica/genetica.shtml> • <http://www.oepm.es/>  
<http://www.naciongay.com/editorial/reportajes/82901192342.asp>  
[http://www.wto.org/spanish/news\\_s/pres01\\_s/pr220\\_s.htm](http://www.wto.org/spanish/news_s/pres01_s/pr220_s.htm)





## Fitxa 1.1.

### Honakoak definituz...

gen, genoma, ugalketa artifiziala, lagunduriko ugalketa, manipulazio genetikoa, giza garapena, giza klonazioa, klonazioa xede terapeutikoekin, kode deontologikoa, aurrerapen zientifikoa.

## Fitxa 1.2.

### Giza genoma

Giza genomaren azterketa bateratua hasteko ideia 1985 eta 1987 artean eginiko hitzaldi zientifikoetatik sortu zen. Giza Genomaren Proiektuak indarra hartu zuen Estatu Batuetan 1990ean Nazio mailako Osasun Institutuen finantzaketa eta Energia Departamentuarena handitu zenean. Estatu Batuetan izan zen programaren lehendabiziko zuzendarietako bat James Watson biokimikoa izan zen, 1962an Fisiologia eta Medikuntza Nobel Saria britainiar Francis Crick eta Maurice Wilkinsekin batera jaso zuena ADNaren egitura aurkitu izanagatik. Herri askok du giza genomaren gaineko ikerketa programa ofizialak martxan lankidetzaz ez formal horren zati gisa, horien artean, Frantzia, Alemania, Japonia, Erresuma Batua eta Europar Batasuneko beste kide batzuek. Estatu Batuetan egiten den programa zatiaren kostea 3.000 milioi dolarretakoa da 15 urtetan zehar 2005 urtea arte.

<http://www.monografias.com/trabajos6/geum/geum.shtml>

Gauzak ikusita, argi dago jadanik hasi egin dena gizakiak klonatzeko atzera kontua. Severino Antinori italiar ginekologoak esan du, dena prest duela klonaturiko enbrioiekin senar gehienak antzu dituzten emakumeak haurdun uzteko. "Ez dute guraso izateko beste bide naturalik". Arrazoitu du adituak (...). Esperimentua egingo den gune geografikoaren berri eman ez badu ere, "itsasontzi batean" ere izan liteke herri bateko gobernuaren baimena eskuratzen ez badu- aurten, azaroan zehar izango dela ziurtatu du zientifikoak.

<http://www.conozcamas.cl/noviembre2001/reportaje2/reportaje2.htm>

## Fitxa 2.1.

### Lee M. Silver-ren aipamen bibliografikoa:

Silver irakasleak genetika, eboluzioa, ugalketa eta garapenaren biologia ikertzen ditu egun. Horrekin batera biteknologiaren giza inpaktuari buruzko ikastaro eta hitzaldiak ematen ditu eta bereziki erreprogenetikari buruzkoak. "Vuelta al Edén" izenekoan kontu etiko sakonak eta erreprogenetikaren erabilera dela eta sortutako eragozpenak aztertzen ditu. Edozein kasutan ere, teknologia horien erabilera ekidinezina dela pentsatzen segitzen du eta ez dutela gobernuak kontrolatuko, ez gizarteek, ezta sortzaile izan diren zientifikoek beraiek ere.

Silver profesoreari buruz gehiago ezagutzeko:

<http://www.el-mundo.es/1998/12/04/sociedad/4N0091.html>

<http://www.imasd-tecnologia.com/imasd/dic98/1298vi1.htm>



## Fitxa 2.2.

### Edenera itzulera

#### Washington, D.C.: 2350eko maiatzaren 15a

Ordenagailuaren pantailaren goiko aldeko leiho batean hamasei bat urteko neska gazte baten irudia azaltzen da. Alicek aurpegi borobila du, ezpain finak, sudur zabal samarra, belarri txikiak eta bere amaren aldeko amamak eta aitaren aldeko osaba batek zituztenen antzeko begi marroiak. Leihoaren beheko alden Alice nor den eta bizitzaz zer espero dezakeen zehatzago azaltzen duten kategoria orokorren zerrenda bat dago. Kategoriak dira: gene bakar baten desordena larriak; gaixotasun konplexu eta infekziosoetarako aurretiko jarrera. Melissa neskaren aurpegia duen leiho nagusira itzultzen da. Gero Alice 43.aren leihoa ixten du, eta leiho berri bat zabaltzen da neska berri bat aurkezteko, aurreko Alicerekin inolako zerikusirik ez duen aurpegi itxura duena (...). Horietako zein helduko da benetako Alice izatera? Bere alabarentzako profil genetiko baten hautaketa izango da Melissa eta bere senarra Curtisek bizitza osoan hartuko duten erabakirik zailena eta ez dago arinegi ibiltzeko arrazoirik. (...) Prozesuarekin hasi aurretik, Melissa eta Curtisek bazekiten euren alabaren konstituzio genetikoa bien profil genetikoek mugatuta egongo zela. Baina bestelako ezaugarri positiboak ere aukeren barruan zeuden. Melissak gehien nahi zuena jaiotzatik musikarako dohaina zuen alaba zen, berak zuen dohaina baino handiago ja ere bai. Baina musikarako dohain gehien zuena lotsatia eta Curtisek gustuko zuen analisi abstrakturako dohain gutxikoa zen. (...) Profil genetikoak beren osotasunean izateko aukera egi bihurtu zen unetik bertatik, edozein helduk ikus zezakeen soilik bereak ziren akats eta ahulezien konbinaketa genetikoa, eta semea edo alaba izateko ordua heltzean, gurasoei zegokien ekidin beharrekoak eta bestetik onargarriak zeintzuk ziren erabakitzea. Melissa eta Curtisek badakite ez dagoela seme edo alaba perfekturik. Azkenean Melissa eta Curtisek aukeratu egin zuten eta bederlatzi hilabete beranduago alaba baten jaiotzaren zirrara bizi zuten. Benetako Alice gene aberastua.

(.....) Akademiko ospetsuen batzordea Washingtonen zen, sekretuan, azken txosten bat aurkezteko. (...) Vaship ikaratuta zegoen entzun zuenagatik eta erantzun egokiaren bila ari zen. Aberaste genetikorako klinikak, EG, Iparramerika osotik banatuta zeuden. Guztiak ari diren enpresa pribatu legez gobernuaren inolako laguntzarik gabe. EG-ak Estatu Batuetako hiritarrei ez ezik, atzerritar askori ere zerbitzuak eskaintzen zizkien milaka milioi dolarreko industria ordezkatzeko. (...) Jakina, urteak pasa ahala, hiritarrek EGak epe luzean zuen giza eraginaz zuten kezka azaldua zuten. (...) Gizarteko pertsona ezagun guztiek, politikari, enpresari, profesional, atleta, artista, klase generikoaren kide ziren. (...) Inkontzienteki, Vaship-ek burua astintzen zuen EG-aren desagertzea ezin pentsa zitekeela ikusi zuenean. Etorbizuneko guraso guztiek ahalik eta abantaila gehien eman nahi zieten seme-alabei. Horrela izan zen milaka eta milaka urtetan. Nola konbentzi zitezkeen gurasoak gizartearen ongia nahi pertsonal instintibo horren aurretik jar zezaten? Zergatik ez da morala neure seme-alabentzat onena nahi izatea?

17. kap., epilogo – Vuelta al Edén – Lee M. Silver–.



## Fitxa 2.3.

### Eztabaidarako proposaturiko kontuak

- Uste al duzue kasu hau errealitate bilaka daitekeela? Okerra edo moralaren kontrakoa al da ordena naturala manipulatzeko?
- Aurrerapen zientifiko posible oro garatu beharra dago? Zeren arabera erabaki daiteke aurrerapen zientifiko bat gizakien eskubidea denentz? edo, edozein aurrerapen al da eskubidea?
- Eskubidea izateagatik, ikerketa zientifiko guztiak diru publikoarekin finantzatu behar al dira?. Ikerketetarako fondoak antolatzeke boterea bazenu, non inbertitu beharko liriateke Giza Eskubideen Kode Unibertsala (GEKU) kontuan izanik?
- Zein betebeharrak eta erantzukizun hartu beharko liriateke kontuan gai horien inguruan ikerketak egiteko orduan?

## Fitxa 3.1.

### Eztabaidarako ideiak

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera, "Gizaki guztiak jaiotzen dira libre eta berdinak duintasun eta eskubideetan" (1. Art.) eta "Pertsona guztiek dute berari zein familiari, osasuna eta ongizatea, eta bereziki elikadura, janzteia, etxebizitza, medikua eta beharrezko diren giza zerbitzuak bermatuko dion bizi mailarako eskubidea" (25. Art). Kasu horretan, uste duzue eskubide horiek bermatu egin direla? Pertsona guztiak berdinak badira duintasun eta eskubideetan, eta medikurako eskubidea badu, tratamendurako diru aukerarik ez dutenak, pertsonak dira? Ezagutzen al duzue antzeko zerbaitek gertatu den beste kasurik? Bururatzen al zaizue gertatutakoa ekiditeko modurik? Adibide gisa Manuel Patarroyoren testigantza aurkez daiteke.



